



LANHITZ EGITASMOAREN LEHEN URTEKO BALANTZEA

Lehenik eta behin eskerrik asko mahaikide guztioi.

2006ko irailaren 20an aurkeztu genuen LanHitz egitasmoa Miramon Parke Teknologikoan EUDELeK, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek, eta Eusko Jaurlaritzak, Eusko Jaurlaritzako Industriako eta Laneko Sailek eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Urtebete pasa da, eta egindako lanaren berri ematera gatoz: LanHitzen lehen urteko ibilbidearen balantzea egitera gatoz duela urtebete egitasmo hau martxan jarri genuen herri-erakunde guztiak.

Ordutik hona udal eta foru hauteskundeak izan dira, eta udal eta foru aldundi berriak osatu dira. Baina katea ez da eten: hemen gaude duela urtebete LanHitz bultzatzeko konpromisoa hartu genuen erakunde guztiak, egindako lanaren berri emateko eta aurrera begira egin asmo duguna azaltzeko. Hemen ez dago elkarlanaren aldeko propaganda egin beharrik: mahai honek agerian uzten du herri-erakundearteko elkarlana predikatu ez ezik praktikatu egiten dugula. Elkarlanean jardun dugu urtebetez, eta elkarlanean gatoz, elkarlanean jarraitzeko borondate sendoarekin.

Euskara lan munduan sustatzea lehentasunezko jardunbidea da Eusko Jaurlaritzarentzat. Legegintzaldi honetan ekimen ugari jarri ditu abian Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskara lan-munduan eta esparru sozio-ekonomiko pribatuan sustatzeko helburuarekin. Ekimen horietan guztietan nagusia, edo hobeto esanda ekimen horien guztien bizkarrezurra, hemen mahaian dauden beste erakunde publikoekin batera martxan jarritako LanHitz egitasmoa da.

Jakina da euskarak aurrerapauso nabarmena eman duela azkeneko urteotan. Azken 20 urteen erradiografiak agerian uzten du euskarak Euskadiko Autonomia Erkidegoan hazkunde demografiko, geografiko eta funtzionala izan duela.

- 200.000 hiztun (potentzial) irabazi ditu euskarak hogeitertan. Gaur egun biztanle guztien artean heren batek daki euskaraz, eta 25 urtetik beherako gazteen artean % 50etik gora dira elebidunak.
- Elebidunen kopuruak gora egin du hiru lurraldeetan eta udalerriguztietan.

- Hazkunde demografiko eta geografikoarekin batera, hazkunde funtzionala ere gertatu da: gaur egun orain dela 20 urte baino gehiago erabiltzen da euskara, eta arlo gehiagotan erabili ere. Ikusi besterik ez dago zer gertatzen den hezkuntza-sisteman –unibertsitatea barne–, komunikabideetan, kultur sorkuntzaren adierazpen guztietan, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan edo Administrazioan bertan.

Beraz, bistan da aurrera egin dugula, baina –dixosozko baina- erronka handia daukagu aurrez aurre: erabilera da gure erronka. Hizkuntza baten osasuna erabilerak adierazten duena da: erabilera da hizkuntzaren osasunaren termometroa. Eta euskararen erabileraren erronka oraindik irabazi ez dugun erronka da.

Nola irabazi erabileraren erronka? Hiru baldintza nagusi bete behar dira: hiruetan garrantzitsuena, herritarren atxikimendua, herritarren borondatea euskara erabiltzearen alde. Beste baldintza bat da euskararen ezagutza areagotzea, gero eta herritar gehiago izatea euskaraz asko edo gutxi hitz egiten dakitenak: hori beharrezkoa da, baina ez da nahikoa. Hirugarren baldintza da euskara erabiltzeko aukerak sortzea gizarte-bizitzako esparru ugarietan: euskaraz hitz egiten jakite hutsa ez da nahikoa, gero eguneroko bizitzan euskaraz jarduteko aukera egiazkorik ez baldin badago. Eta horretan saiatu behar gara, eta horretan ari gara buru-belarri, herri-erakundeok: euskara erabiltzeko aukera sortzen laguntzea da gure egiteko garrantzitsua. Baita ere lan-munduan, esparru sozio-ekonomikoan.

Duela bederatzi urte onartu zen Euskararen Plan Estrategikoak, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak alegia, hauxe dio hitzez hitz: *“datozen hamar urteotako erronkarik nagusia, belaunaldi berrietako euskaldunentzat euskara heldu-
aroko erabilera-eremu berezi eta garrantzizkoetarako atsegina eta gaztelania bezain baliozko egitean datza. Horretarako, euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolatik harantzago eraman eta beste erabilera-eremu berezi eta garrantzizkoetara zabaldu behar da”*.

Argi dago, beraz, hemendik aurrerako erronka nagusia euskararen erabilerarekin lotzen dugula. Euskararen erabilera ez dadila eskolako lau hormetara mugatu, baizik eta han eta hemen, honetan eta hartan erabilia den hizkuntza bizia izan dadila: hori da erronka, hori da helburua. Eta helburu horretarantz lan egiteko oso garrantzitsua da lan-mundua.

Hutsaren hurrengoa da gaur oraindik euskararen presentzia lan-mundu pribatuan. Gaur egun, eskolan euskaldundu eta euskaraz ikasketak jaso dituen gazteak euskara gutxiko lan-mundura egin behar izaten du jauzi. Eta hori

ekidin nahi dugun eta behar dugun zerbait da. Gizarteko hainbat esparrutan euskara erabiltzearen alde egiten ari garen ahaleginarekin uztartu nahi dugu lan-mundua.

Hortaz, eskolan euskaldundutakoa eta euskaraz formatu dena ez dezala lan-munduak erdaldundu. Datu esanguratsua emango dut. Unibertsitatera doazen gazteen %52ak selektibitate-probak euskaraz egitea erabaki du. Horrek esan nahi du gure herria hemendik 15 urtera zuzenduko dutenak, gehienak behintzat, elebidunak izango direla. Gazte hauek, etorkizuneko heldu hauek, euskaraz jarduteko aukera izan behar dute lan-mundurako saltoa egiten dutenean. Horretara dator LanHitz: lana eta hitza euskaraz uztartzeko/lotzeko aukerak sortzen laguntzea da bere helburua.

Gogora ekarri nahi dut, kontu jakina bada ere, zer-nolako garrantzia duen gure gizartean lan-munduak: langabezia zorionez %5aren azpitik dagoen gizarte honetan, herritar gehienek lantokian egiten dugu egunaren heren bat gutxienez. Funtsezkoa da esparru hori euskararen erabilera sozialean aurrera egingo badugu. Jauzi kualitatiboa da euskararen normalkuntza prozesuan ematen ari garena: euskara lan munduan sustatzeko lanei esker, aurrerantzean ez delako gizarte-esparru pisuzkorik izango euskararen erabilera areagotzeko egitasmorik gabe. Orain hogeitaz urte hezkuntzan jarriak genituen begirada eta esperantza guztiak: orain hezkuntzatik harantzago goaz, lan-mundu pribatuan ari gara.

Triunfalismo antzurik gabe, baina itxaropenez begiratzen diogu etorkizunari. Luzea eta konplexua da hizkuntza bat, euskara gure kasuan, normalizatzeko prozesua: argi daukagu bide luzea dela egiteko daukaguna, argi daukagu enpresak ez ditugula goizetik gauera euskaldunduko, argi daukagu euskarari enpresa-munduan egingo zaion lekua inplikatu guztien –enpresaburuen eta langileen- borondatearen, ahaleginaren eta erritmoen neurrikoa izango dela. Oinarri irmoak jarri behar dira lehenik, oinetako sendoak jantzi behar dira aurrena, gero segidan pausoak eragozpenik gabe eta modu eraginkorrean eman eta urrutira iritsi ahal izateko. Horixe da LanHitzen lehen urte honetan egin duguna.

Haxe da LanHitzen urtebeteko balantzea:

- 1) Herri-erakundeok bat eginik aritu gara: Eusko Jaurlaritza (Eusko Jaurlaritzaren barruan, gainera, Lan Saila, Industria Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza), hiru Foru Aldundiak eta Udalak EUDELen eskutik.
- 2) Lankidetzaren hitzarmenak sinatu eta garatu ditugu lan-munduko eragile garrantzitsuekin: enpresaburuen elkarte guztiekin, lau sindikatu

- nagusiekin, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioarekin, Euskadiko hiru Aurrezki Kutxekin eta Makina Erreminta Institutuarekin (IMH).
- 3) Lantokietan euskarari lekua egiteko markoa eta metodologia sortu eta enpresen esku jarri dugu (EME – Erreferentziazko Marko Estandarra).
 - 4) Enpresaz enpresa sentsibilizazio eta sustapen lan sistematizatu bat egin dugu, gero ikusiko dugun bezala.
 - 5) Laguntza teknikoak eta ekonomikoak jarri ditugu enpresen esku: legealdiko bi urteetan bikoiztu egin ditugu diru-laguntzak.
 - 6) Euskararen Kalitate Ziurtagiria, hau da, euskararen erabileraren ebaluazio eta errekonozimendu ziurtagiri publiko eta ofiziala sortzeko lanak egin ditugu.
 - 7) Komunikazio plan iraunkorra garatu dugu.

Esparru sozio-ekonomikoko eragile naturalekin harremanak finkatu eta sendotu

2006ko irailean sinatu genituen hitzarmenak enpresaburuen elkarte guztiekin (CONFEBASK, ADEGI, CEBEK eta SEA) eta lau sindikatu nagusiekin (ELA, CCOO, LAB eta UGT). Gerora, Euskadiko hiru Aurrezki Kutxekin (Gipuzkoa Donostia Kutxa, BBK eta Caja Vital), Makina Erreminta Institutuarekin (IMH) eta Euskadiko Kooperatiben Konfederazioarekin sinatu ditugu hitzarmenak.

Sentsibilizazioa eta sustapena enpresaz enpresa

Lan sistematizatua izan da hau, eta hala izaten jarraitzen du. Enpresetara joan gara zuzenean. Lehen urte honetarako aukeratu ditugun enpresak ondorengo irizpideok betetzen dituztenak izan dira:

- Elebidunen kopurua %45etik gorakoa duten zonalde soziolinguistikoetan kokaturiko enpresak.
- 15 langile baino gehiago dituztenak.
- LanHitz webgunearen edo 012 telefonoaren bidez espresuki eskaera egin dutenak.

Irizpide horiek betetzen dituzten enpresak 1.929 dira.

Enpresa horietara guztietara hurbilduko gara 2007 urte hau bukatzerako. Gutuna eta informazio idatzi bidaltzen diegu lehenik; ondoren, telefonoz deitzen diegu; segidan, hala nahi duenari bisita pertsonalizatua egiten diogu; jarraian, hala nahi duenari bere enpresaren oinarritzko hizkuntza-diagnostikoa egiten diogu; hurrena bigarren bisita pertsonala egiten diegu, eta jarraipenerako bidea irekitzen saiatzen gara.

Irailaren 30 arte 1.646 enpresetara iritsi gara. Horietatik 1.227 dira erantzun dutenak (deia egin diegunen %74a).

Erantzun duten 1.227 enpresa horietatik 448 momentuz interesik ez dutela adierazi digute, eta badira beste 367 oraindik erantzunik eman ez digutenak. Nolanahi ere, 412 enpresa dira (jadanik erantzun dutenen % 33,58a) LanHitz egitasmoan parte hartzeko interesa adierazi dutenak. 412 enpresa horiekin beren enpresetako hizkuntza-egoerari buruzko oinarrizko diagnostikoa egiteko lan-bilera egin dugu. Gutxienez 412 enpresa berri dira euskararen sustapena aurtun beren agendan sartu dutenak.

Interesa adierazi duten enpresa hauei lurraldeka erreparatzen badiegu, ikus dezakegu horietatik 241 Gipuzkoakoak direla (%58,5a) , 156 Bizkaikoak (%37,86a) eta 15 Arabakoak (%3,64a).

Interesa adierazi duten enpresa horietako 270 (% 65,53a) industria sektorekoak dira, eta 142. (% 34,47a) zerbitzuetakoak.

Urte honetan egin dugun, eta egiten jarraitzen dugun, sustapen eta sentsibilizazio lan hau inolako zalantzarik gabe esan liteke gure gizartean orain arte egin den ahaleginik zabalena, handiena eta sistematizatuena dela. Gainera, herri-erakundeen eta enpresaburuen eta sindikatu nagusien bermeaz egin den lehen saioa da.

Laguntza tekniko eta ekonomikoak

Enpresaren hizkuntza-egoeraren gaineko oinarrizko diagnostikoa egin eta prozesua aurrera eramatea erabakitzen duten enpresentzat hainbat laguntza tekniko eta ekonomiko jarri ditugu abian urte honetan: euskakdi.net atariko Lanhitz web orriaren bidez eta 012 telefonoaren bidez informazio eta aholkularitza zerbitzua; EME (Erreferentziazko Marko Estandarra); agiri-ereduen banku telematikoa; CRMa (bezeroekiko harremanak kudeatzeko sistema hedatuena) euskarara lokalizatzea; euskalduntzeko eta alfabetatzeko moduluak, eta trebakuntza saioak HABEren eskutik; prestakuntza saioak: Linguanet Eusko Ikaskuntzako Asmoz Fundazioarekin, 30 + 10 mintegia Makina Erreminta Institutuarekin – IMH; beste zenbait baliabide informatiko; eta diru-laguntzak.

Diru-laguntzei erreparatuta esan behar dugu, 2007an 2.300.000 euro banatu dituela Eusko Jaurlaritzak euskararen erabilera planen diseinua, garapena eta kudeaketa diruz laguntzeko. Diru-kopuru hori da 2006an baino %26 gehiago, eta legegaldiko lehen urtean, 2005ean alegia, baino % 105,6 gehiago. Guztira 141 enpresa izan dira diru-laguntza jaso dutenak, horietatik 33 berriak.

Diru-laguntza hauez gain nabarmendu behar dira Udalek ematen dituztenak (ez daukagu 2007ko diru-kopuru zehatzaren berririk, baina Udal ugari dira laguntza ekonomikoak ematen dituztenak), eta Foru Aldundiek ematen dituztenak. 2007 urte honetan Bizkaiko Foru Aldundika 19 enpresari eman die diru-laguntza, guztira 500.000 euro, eta Gipuzkoakoak 14 enpresari, guztira 250.000 euro.

Euskararen Kalitate Ziurtagiria

Azkenik, 2007 urtean zehar lan isila baina sakona egin dugu Euskalit Fundazioarekin elkarlanean hilabete gutxi barru, aurtengo urtearen amaierarako, enpresen esku jarriko dugun Enpresetako Euskararen Kalitate Ziurtagiria, ziurtagiri publiko eta ofiziala, egituratu eta finkatzeko. Euskarari lekua egitearekin, euskara zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza bihurtzearekin, enpresek zerbitzu hobea eta kalitate handiagokoa ematea lortuko dute: horregatik euskararen erabilera enpresa munduan ohikoak diren kalitate parametroetan ebaluatu eta errekonozitu dadin nahi dugu, eta horretarako sortuko dugu Euskararen Kalitate Ziurtagiri publiko eta ofiziala, enpresek ordaindu beharrik izango ez dutena, baina irabazi beren merituei esker irabazi ahal izango dutena. Urte honetan jarduera eta zonalde ezberdinetako hainbat enpresatan ari gara testatzen Ziurtagiri honen ebaluazio-eskema, eta berehala izango da kaleratu. Urte honetan jadanik eratu ditugu Euskararen Kalitate Ziurtagiriaren Artezkaritza Batzordea (mahai honetan gauden herri-erakundeok eta CONFEBASK, ADEGI, CEBEK eta SEAk osatzen dutena), eta Ziurtagiriaren Kudeaketa Batzorde Exekutiboa (oraingoz Artezkaritza Batzordeak eta Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak osatzen dutena).

Hauxe da LanHitz egitasmoaren lehen urteko balantzea, balantze aberatsa inolako ezbairik gabe, lanean jarraitzeko ilusioa izateko bide ematen duen balantzea, triunfalismo merke eta antzuetarako ez baina esperantzarako bai, esperantzarako bide ematen duen balantzea.

Lana ez da amaitu, hasi besterik ez gara egin. **Aurrera begira** hainbat erronka ditugu esku artean:

- Lehenengo eta behin, herri administrazioen arteko elkarlana bideratzen eta koordinatzen jarraituko dugu, elkarlanean sinesten dugu eta elkarlana are eta sakonago praktikatzeko jarraituko dugu. Adostasuna eta kontzertazioa, baita ere, mundu sozio-ekonomikoko eragile nagusiekin, enpresaburuen elkarteekin eta sindikatuekin.
- Bigarrenik, sustapen eta sentsibilizazio lan sistematizatuarekin jarraituko dugu, eta bigarren faserako honako bi irizpide hauek hartuko dira

aintzat: gune soziolinguistiko gehiagotara hedatzea, eta, Kontsumitzaile eta erabiltzaileen Legearekin lotuta, kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko atala garatzen duen dekretuan jasotako sektore estrategikoak lehentasunezko zat jotzea.

- Hirugarrenik, laguntza tekniko eta ekonomikoekin jarraituko dugu.
- Eta azkenik, euskararen erabileraren errekonozimendu eta ebaluazio sistema finkatuko duen Euskararen Kalitate Ziurtagiria kaleratuko dugu, EUSKALITekin elkarlanean.

Askotan entzuten den leloa da “euskara guztiona da”, eta gu ere horretan gaude. Baina, guztiona bada euskara, guztiok eman behar diogu arnasa, guztiok eman behar diogu erabilia izateko aukera benetakoa, eta guztiok inplikatu behar dugu euskara lan munduan sustatzeko lanetan. Neurri batean lortu dugu helburu hori lehen urte honetan, eta pozik gaude aipatu ditudan erakundeen partetik jasotako erantzunarekin. Konpromiso hori ekintza zehatzetan gauzatzen asmatu behar dugu etorkizunean.

Eleaniztasuna da gizartearen oraina eta geroa. Lehiakortasunaren deman abantaila bat irabaziko dute euskarari heltzen dioten enpresek, beren zerbitzuari balio erantsia emanez, etengabe berritzeko dinamismoa erakutsiz. Zenbat eta leku gehiago egin euskarari, zenbat eta hobeto eman arnasa hizkuntzen arteko elkarbizitzari, orduan eta berrikuntza, modernitate eta dinamismo handiagoa izango dute enpresek.

Izan ere, gero eta jende gehiago baitago lana euskaraz ere egiteko prestatua dagoena. Eta gero eta herritar gehiago baitira, gero eta bezero gehiago baitira euskara zaintzen eta erabiltzen duten enpresak positiboki baloratzen dituztenak. Gero eta elebidunagoa da gure gizartea, eta enpresek gizarte horretara egokitu behar dute beren jarduna, atzean geratu nahi ez badute, enpresak ez baitira isla bat gizartean. Hitz gutxitan esanda, gero eta errentagarriagoa da enpresentzat euskarari bide egitea.

Eta testuinguru horretan Euskadiko Autonomia Erkidegoko enpresa guztiek jakin behar dute, LanHitzi esker, orain merkea eta erraza dela enpresetan euskarari lekua egitea: merkea, diru-laguntzak eskaintzen ditugulako herri-erakundeok, eta erraza, aholkularitza teknikoa eta lan-tresna egokiak ere baditugulako gaur enpresen eskura jarriak.

Honek guztionek, ordea, ezer gutxitarako balioko du baldin eta garrantzitsuena den baldintza betetzen ez bada: enpresen aldetik euskarari enpresetan lekua

egiteko borondatea eta erabakia. Badakigu aberastasun ekonomikoa sortzea dela enpresen helburu nagusia, baina ez da bakarra. Helburu hori ez ezik enpresen helburua da, baita ere, gizartearen kohesio eta elkarbizitzaren alde lan egitea: enpresek euskarari lekua eginez ekarpen handia egin diezaiokete Herri honetako hizkuntzen elkarbizitzari eta, ondorioz, gizarte honen elkarbizitzari. Konbentziturik gaude errentagarritasun ekonomikoa eta soziala berarekin dituela lan honek, eta izpiritu horrekin jarraituko dugu datozen hilabeteetan.

Donostia, 2007ko urriak 9

Patxi Baztarrika

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea